


Bizikleta Ona, polita, merkea...

Bizikleta da mundu osoan hedatuena dagoen garraiobidea; sinplea izanik, era berean mila aukera eskaintzen du. Gure herri eta hirietan, ordea, ez da samurra bizikletan ibiltzea. Ugari dira arriskuak eta oztopoak. Ugari beharrak eta egitasmoak. Horien inguruan jardun zuten hainbat adituk iragan astelehenean, Tolosan.

Ramon Olasgasti

MAHAIAN hirukotea eseri zen: Edorta Bergua, Hirigintzako teknikari eta Kalapie Hiri Txirringulartu elkarte kidea; Antxon Lete, Azpiegiturako teknikari eta bizikletazalea; eta Franzis Navarro, ziklismo aldizkarietako idazle eta hainbat libururen egilea. Tolosako Udaleko Ingurugiro Sailak antolatutako mahai-ingurua Josu Iztuetak moderatu zuen.

Edorta Bergua Kalapie taldearen helburuak zeintzuk diren azpimarratuz hasi zen: «Txirringulartu edo bizikleta erabiltzaileentzat baldintza seguru, egoki eta erosoak lortzea da gure asmo nagusia, baina ez soilik bidegorriak egitea, baizik eta bestelako bideak ere (trenbide zaharrak, trafiko gutxiko errepideak...) egokitzea bizikletazaleen beharretara, azpiegiturak sortzea (aparkatzeko lekuak eta abar). Politika integralak, azken batean». Horretarako, bizikletaren aldeko heziketa hedatzea funtsezkotzat jo zuen Berguak.



Bi bizikletazale Iruñean paseatzen. Aukera gehien eskaintzen duen garraiobidea da bizikleta.

Joxe Lacalle

Bizikleta, nagusiki, aisialdirako edo kirolerako tresna bihurtu da, trafiko latzaren eta hiri handi eta txikiak azpiegitura oro har eskasen poderioz. Hizlariak eta publikoko hainbatek, ordea, lanera joateko, batera eta bestera mugitzeko garraiobide gisa aldarrikatu zuten, eta horren alde predikatu behar dela. Ikerketen arabera, frogatua dago 8 kilometroko inguruan bizikleta dela garraiobide azkarrena, autoaren aurretik.

Ikerketen arabera, frogatua dago 8 kilometroko inguruan garraiobiderik azkarrena bizikleta dela

Antxon Lete teknikariak, ordea, bidegorriak egokitzeko Euskal Herriak dituen zailtasunak aipatu zituen: orografia nagusiki, eguraldia ere bai, zortasunak, lur jabetzak eta beste ahaztu gabe. «Horiek denak kontuan izanda, gaur egun bidegorri kilometro bat 10 milioi pezeta kostatzen da», jakinarazi zuen Letek. Bada dirua, baina ezer gutxi egungo errepide bateko kilometro bat egitea kostatzen denaren aldean: 1.000 milioi xahutzen dira batez beste kilometro bakoitzeko.

Franzis Navarrok, berriz, bizikletazaleek ere arau batzuk errespetatu behar dituztela azpimarratu zuen, hala nola espaloietan ez ibiltzea, edo gutxienik kontuz ibiltzea, argietan geratzea...

Hirurek jakinarazi zuten bizikletaren aldeko egitasmoak ari direla mugitzen batean eta bestean, Europa osoa bidegorriz komunikatzeko asmoa ere hor dagoela, baina guztiaren gainera, heziketa eta administrazioen laguntza ezinbestekotzat jo zuten.

MENDIA x Roger Frison-Roche alpinista eta idazle frantziarra, 'Sokaldiko lehena', hil da
Roger Frison-Roche alpinista, mendi gidari eta idazle frantziarra joan den ostegun gauean zendu zen, Chamonixen, 93 urte zituela. Frison-Roche Parisen jaio zen, baina 17 urte zituela Chamonixera jo zuen, mendiak erakarrita. 24 urte betetzerako, Chamonixeko Gidari Elkarte-ko lehen gidari atzerritarra zen; Chamonixkoa ez zen lehena, alegia. Bigarren Mundu Gerran Aljerren ibili zen kazetari lanetan, eta han idatzi zuen, enkarguz, *Premier de Cordee* eleberri ezaguna, mendiko literaturako klasikoetan klasikoena. Hiru milioi ale baino gehiago saldu dira mundu osoan, eta hitz haiekin liluratuta hazi dira alpinista belaunaldi asko.

KIROL ESZKALADA x Iñaki Markok eta Amaia Agirrek irabazi dute Pio Barojako Free Open proba
Iñaki Marko bilbotarra eta Amaia Agirre donostiarra nagusitu ziren iragan asteburuan Donostiako Pio Barojan jokaturako Free Open proban. Fortuna Kirol Elkarteak antolatutako lehia horretan, 30 eskalatzaile bildu ziren. Mutiletan, Aitor Ulaiar izan zen bigarren eta Runeb Maza hirugarren. Nesketan, berriz, Lourdes Burgos izan zen bigarren eta Mame Amunarriz hirugarren.

IZOTZ ESZKALADA x Zazpi probatan jokatu da Munduko Kopa, urtarrilaren 14tik martxoaren 10era
Urtarrilaren 14an hasiko da Munduko Kopa, Austriako Pitztal herrian. Urtarrilaren 23-25eko asteburuan jokatu da bigarren proba, Courchevel-en (Frantzia). Hirugarrena, berriz, Cortina d'Ampezzon (Italia), urtarrilaren 27tik 30era. Laugarrena Suitzan izango da, otsailaren 11-13an. Chamonixek hartuko du bosgarrena, otsailaren 18-20an. Azken biak Kirov (Errusia) eta Aren (Suedia) jokatu dira, martxoaren 3-5an eta 10-12an.

Ciclos y Caravanas Oiartzun

Lehen mailako markak paregabe prezioekin

MTB 24" 18" abiad.
Alum. Ilantak • Aurrealdeko esekidura
Kaskoa opari
tarifa pr.: 29.900 pta.
eskaintza pr.: **25.900 pta.**

Aukera handia makina estatikoetan

Snow ohola
karraka biko finkapena
snow-erako Northwave botak
49.900 pta

Parka, Gore-Tex
tarifa pr.: 27.370 pta.
eskaintza pr.: **19.900 pta.**

Eskirako eskularruak Gore-Tex Invicta
Mikro Txipa, eskiatzeko pistetan sorbidea libre izateko
4.900 pta

Eskiak eta snow-a salmenta, alokairua eta konponketa

Orduetgia: Astelehenetik larunbata arte, 10-14h eta 16-21h

• Abenduaren 23 eta 24an, eguerdian ere irekita • Igandea 2,10-2 eta 4-9 • Urtarrilaren 3,4,5ean eguerdian ere irekita

CICLOS Y CARAVANAS OIARTZUN Handizkako Zentroa, 9 - OIARTZUN - Tel.: 943 49 22 84
ALCAMPO (MAMUT) igaro eta 2. bidegurutzean eskuinetara - Astigarragako bidean.